



## Sartzeko baldintzak eta onartzeko irizpideak

### Sarbideak eta baldintzak

Deustuko Unibertsitateko Gizarte Laneko ikasketak indarrean dagoen legedian ezarritako baldintzak betetzen dituen edozein pertsona kualifikatuk egin ditzake, adin, sexu, arraza, erlijio, desgaitasun, sexu-orientazio, jatorri edo beste edozein arrazoigatik diskriminatu gabe.

Unibertsitateetako zuzendari nagusiaren 2008ko maiatzaren 23ko informazio oharrak adierazten duen bezala, eta araudi berririk ematen ez den bitartean, graduiko ikasketa ofizialetan sartzeko, beharrezkoa izango da batxilergoko titulua edo baliokidea izatea eta apirilaren 12ko 4/2007 Legeak aldatutako Unibertsitatei buruzko 6/2001 Lege Organikoaren 42. artikuluan aipatzen den proba gainditzea, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako gainerako sarbide-mekanismoak alde batera utzi gabe. Beraz, sartzeko modalitateak mantendu egingo dira, berariazko betekizunekin: Batxilergoa, Lanbide Heziketa, goi mailako heziketa zikloak, Europako hezkuntza sistemetatik sartzea, atzerriko ikasketen baliozkotze partziala, 25 urtetik gorako sarbidea, etab.

Sartzeko aurreko modalitateez gain, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuak laugarren xedapen gehigarrian (3. puntua) ezartzen du diplomadun, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko titulu ofiziala dutenek eta graduiko titulu ofiziala egin nahi dutenek dagokien kredituen aitortpena jasoko dutela, errege-dekretu horren 13. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Laugarren xedapen gehigarri hori kontuan hartuta, Deustuko Unibertsitateak berariazko ikastaro bat eskaintzen du Gizarte Laneko diplomadunentzat. Ikastaro horretara sartzeko irizpideak hauek dira:

1. Gutxienez 207 kredituko Gizarte Laneko Diplomatu titulu ofiziala izatea. Diplomatu horiek Gizarte Laneko Unibertsitate Eskoletan lortu zuten titulua, gizarte-laguntzaileen aurreko eskolak unibertsitatean sartu ondoren, gizarte-laguntzaileen ikasketak Gizarte Laneko Unibertsitate Eskola gisa Unibertsitatean sartzeari buruzko abuztuaren 20ko 1850/1981 Errege Dekretuak araututa.
2. Gizarte Laneko diplomadun titulua izatea. Diplomadun horiek Gizarte Laguntzaile titulua baliozkotzearen bidez lortu zuten titulua, 1987ko maiatzaren 8ko Aginduan horretarako ezarritako eta araututako baldintzak betez. Lehen aipatutako Errege Dekretuaren 2. eta 4. xedapen iragankorrak garatzen zituen agindu horrek.